

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU



ELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES

KARTA ZURIAK  
CARTAS BLANCAS





# Esther Ferrer

## Nire bizitza kontatuko dizuet

Donostia 2016k *Karta Zuria* eman dio Esther Ferrerri bere proposamenekin Hiriburutzaren programa kultureleko Elkarrizketak atala aberats dezan. Berak, enbidoari eutsi eta hiru performance proposatu ditu, horietan lehena *Nire bizitza kontatuko dizuet*.

Hogei pertsonak hartuko dute parte *Nire bizitza kontatuko dizuet* ekintzan: hamar zeinu-hizkuntzan arituko dira eta gainerakoak, bakoitza hizkuntza banatan (portugesa, fantea, ingelesa, poloniera, ukrainiera, errumaniera, arabiera, euskara, finlandiera eta frantsesa). Performanceak hizkuntzen bi alderdi uztartuko ditu: ikusten duguna eta entzuten duguna. Hala, ikuskizunak goia joko du parte-hartzaile guztiek, keinu eta ahots artean, bat egiten dutenean.

Ekintza honen bidez, zeinu-hizkuntzak gure mosaiko linguistikokoan daukan tokia aldarrikatu nahi du Ferrerrek eta, batez ere, nabarmendu nahi du hizkuntza-aniztasuna funtsezkoa dela pentsamoldeak ere anitzak izan daitezen: "Zenbat eta hizkuntza gutxiago hitz egin, orduan eta errazagoa izango da pentsaera bakarra inposatzea" dio.

**EGUNA** Otsailak 20  
**LEKUA** Tabakalera, z Aretoa  
**ORDUA** 17:00

Sarrera librea lekuak bete arte

## Os voy a contar mi vida

San Sebastián 2016 da *Carta Blanca* a Esther Ferrer para que haga su aportación a la línea Conversaciones del programa cultural de la Capitalidad. Ella recoge el guante proponiendo tres performances, de las cuales *Os voy a contar mi vida* es la primera.

En *Os voy a contar mi vida* intervendrán veinte personas: diez lo harán en lengua de signos y las otras diez hablarán cada una en un idioma distinto (portugués, fante, inglés, polaco, ucraniano, rumano, árabe, euskera, finlandés y francés). La performance combinará el aspecto visual y el sonoro de las lenguas, y llegará a su punto álgido cuando todas las personas participantes se integren en un único conjunto de gestos y voces.

Es una acción con la que Ferrer busca reivindicar el lugar que la lengua de signos ocupa en nuestro mosaico lingüístico y, sobre todo, poner de manifiesto que la diversidad lingüística es un elemento clave en la diversidad de formas de pensar: "Cuantas menos lenguas hablemos, más fácil será imponer el pensamiento único", afirma.

**DÍA** 20 de febrero  
**LUGAR** Tabakalera, Sala z  
**HORA** 17:00

Entrada libre hasta completar aforo